

## Tableta berriak: iPad ez da bakarria

Eskaintzen dituzten abantaila nagusien artean, USB eta HDMI atakak daude, eta prozesagailuei potentzia gehiago eman diete; zenbait modelo, ordea, handiegia eta astunak dira

Beste gailu hibrido bat agertu zaigu merkaturuan apirilaz geroztik. Orduan aurkeztu zuen Apple etxeak ofizialki iPad izenekoa, telefonoaren eta ordenagailu eramangarriaren ezaugarriak biltzen dituen jostailua. Tableta izena hartu dute, eta horiei begira jarria dago jendea. Egia esan, Microsoft etxeak bazituen halakoak lehendik ere (hamarkada bat baino gehiago daramate merkaturuan), baina oso-oso jende gutxi erabili izan ditu, lanbide jakin batzuetan ari direnek, gehienbat. Orain, ordea, horiekin zaletu da jendea, eta aurki ugari dira merkaturuan erabiltzaile ertainentzako tabletak. Baina, merezi al du?

Datozen hilabeteetan, eta urte berriko lehen lauhilekoan, hainbat etxek aterako dute beren tableta: Folio 100, Galaxy Tab, PlayBook edo Steak (xerra, alegia). Toshiba etxearena izango da lehena (espezialista da pisu txiki eta prezio handiko eramangarrietan), eta beste hirurak, hurrenez hurren, Samsung, RIM eta Dell etxeenak. iPad delakoarekin alderatuta, abantaila eta gabeziak dituzte.

### Hobekuntzarik aipagarrienak.

Guztiak eskaintzen dituzte USB eta HDMI atakak, Apple-ren tabletari propio itxi dizkioten horiek, hain zuzen (horrela erabiltzaileek eduki kontrolatuak soilik jaitz ditzakete). Prozesagailu ahaltsuagoak jarri dizkiete, potentzia gehiagokoak, eta ukipen-pantailek be-reizmen handia ematen dute. Gainera, erabilera ani-tzekoak dira, eta HDMI irteerari esker filmak ikusteko edo musika entzuteko ere erabil daitezke.

Modelo berri horiek, gainera, iPad bera baino txikiagoak dira. Erabiltzaile asko kexatu da, izan ere, handiegia dela eta erabiltzeko traketsa. Apple ere ohartu da horretaz, itxura batean, eta zurrumurruek diotenez, tabletaren bertsio berria prestatzen ari da, eta zertxobait txikituko du, erabilgarriagoa eta ergonomikoagoa izan dadin.

Guk aipatu ditugun lau tableten artean ere bada alderik Dell Mini "Steak" delakoak bost hazbete ditu eta Folio 100 modeloak, berriz, hamar. Dell etxearen gailua, adibidez, oso egokia da aldean eramateko, txikia eta arina delako, baina luzaroan erabiltzeko, aldiz, ez da ona, pantaila txikiagia dauka eta. Guztiz bestela gertatzen da, berriz, Toshiba egin duen proposamenarekin. Prozesagailu ahaltsuarekin dator, eta Nvidia txartel grafikoa dauka; ondorioz, horixe da modelorik egokiena bideoak ikusi eta bideo-jokoetan aritzeko. Luzaroan aldean eramateko, aldiz, handiegia eta astunegia da. Argi dago telefono inteligentearen aldera

lerratuko direla tableta batzuk eta ordenagailu funtzioa eskaintzera beste batzuk.

**Gabeziak eta zalantzak.** Hibrido horietan guztietan, iPad-a dago ongien orekatua; ihes egiten die bi estandar horiei, eta beste bat asmatzen du. Mugak eta gabeziak ere baditu, hala ere: Apple-k kontrolatzen du zer eduki deskargatzen diren, ez du USB atakarik eta ez da bateragarria flash bideo-formatuarekin. Abantailen artean, iTunes denda erraldoia: aplikazioz, programa eta zerbituz betea.

Oraingoz ez dago argi gainerako etxeek ere bide bera hartuko duten, eta bakoitzak bere aplikazio-denda sortuko duen Interneten, handik programak eta zerbitzuak ekartzeko. Gaur-gaurkoz, Android sistema eragilearekin dabilzan gailuak -Steak, Folio 100 eta Galaxy Tab- Android Market delakoaz baliatuko dira (Google-rena da). Ez dauka Apple etxearenak bezain muga zorrotzak, eta, beraz, erabiltzaileak askatasun gehiago edukiko du artxiobak deskargatzerakoan. Google bilatzailearen dendak duen eskaintza, hala ere, ez da iristen, inondik ere, iTunes App Store-ren mailara (izen horixe du iPad-en dendak).

RIM etxearen proposamena, berriz, PlayBook delakoa, BlackBerry telefonoaren erabiltzaile motari zuzentzen zaio. Sistema sinkronizatu bat sor liteke telefonoaren eta tabletaren artean, eta bere aplikazio-denda izango lukete, eta RIM etxearen zerbitzari pribatu berezi-bereziak ere bai. Alde horretatik, RIMen apustuak badu antza Apple etxeak egin duenarekin, zeinak binomio gisa erabiltzen baititu iPad eta iPhone. Bada beste datu aipagarri bat PlayBook tabletaren inguruan eman beharrekoa: oraingoz, ez du eskaintzen 3G konexiorik (telefonoak soilik dauka aukera hori, BlackBerry-k alegia).

Prezioari dagokionez, tableta berriak merkeagoak dira iPad-a baino. Modelo

bakoitzak bertsio bat baino gehiago dauka, eta 400 eta 800 euroren artean dabilta guztiak: zenbat eta memoria handiagoa, orduan eta gehiago balio du, eta 3G konexioa eduki edo ez, horrek ere baldintzatzen du, jakina. Adituen ustez, guztiak ere merkatuz joango dira aurrerantzean.

Aukera bat baino gehiago dituzte erabiltzaileek, eta esan liteke, egoera honetan, norberaren filosofiaren arabera dela erabakia: edozein eduki mugarik gabe jaisteko askatasunarekin gozatu nahi badugu, gauza guztien truke ordaintzen ibili beharrik gabe, hemen aurkeztu ditugun tableta berrietako bat erostea da onena. Eta, aldiz, zerbitzu itxi bat nahi badugu, zeinak erabiltzaile-esperientzia paregabea eskainiko digun, iPad delakoa izango da aukerarik onena, baldin eta eta ordaintzeko gupidarik ez badugu.

### Modeloak, BANAN-BANAN

- **Folio 100, Toshiba etxearena:** 10.1 hazbeteko pantaila du, multiukipenezkoa, eta 1.024x600 pixeleko bereizmena ematen duena. Tegra 2 prozesagailua dauka, Nvidia-rena, ahalmen grafiko handiarekin, eta 3G eta wifi sistema dakartza Sarera konektatzeko. Android sistema eragilean oinarritzen da, eta USB atakak eta HDMI irteera multimedia eskaintzen ditu. Gainera, flash bideoak ikusteko modua ematen du (iPad-ak ez). 400 euro balio du 3G-rik gabeko bertsioak. 3G duena eskuratzeko, berriz, laguntzak emango dituzte operadoreek. Webcam-a ere badu, bideokonferentziak egiteko.
- **Dell Mini "Steak":** aski txikia da (bost hazbetekoa du ukipen-pantaila), eta 120 gramoko pisua. Prozesatze-gaitasun handia du, hala ere, eta bi kamera dakartza: bat argazkiak egiteko eta bestea bideokonferentziarako. Telefono gisa erabil liteke (iPad-a ez), eta 3G konexio harigabea eskaintzen du, Bluetooth eta wifi, baita USB ataka bat ere. Memoria-gaitasuna kanpoko txartelen menpe geratzen da; 1,63 gigabyteko flash diskoa dauka, eta SD txartelentzako sarbidea. Espero izatekoa da operadoreek laguntzak emango dituztela erosteko, eta, itxuraz, 500 euroren azpitik ibiliko da wifi daukan bertsioa.
- **Galaxy Tab:** zazpi hazbeteko pantaila du, eta 1024x600 pixeleko bereizmena (telefono mugikorretatik gertuago dabil, beraz, ordenagailuetatik baino). Folio 100 modeloaren aukera berdintsuak eskaintzen ditu, baina hura baino txikiagoa da. Android Market dendara sartzeko aukera ematen du.
- **PlayBack:** proposa da BlackBerry telefona erabiltzen dutenentzat. Elkarrekin sinkroniza daitezke, eta sistema eragile bereziarekin dabil: BlackBerry Tablet OS. Wifi konexioa eskaintzen du, eta zazpi hazbeteko LCD pantaila, multiukipenezkoa, eta 1024 x 600 pixeleko bereizmena duena. Ez dauka ez 3G bertsiorik ez USB atakarik; prozesagailuak 1 gigabyteko RAM memoria dauka, iPad-arenak halako lau.

